

## **ELKARBIZITZA SUSTATZEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA**

### **ZIOA**

Gipuzkoako Diputazioak Diru-sarrera bermatzeko laguntza (AGI) kentzeko hartutako erabakiaren aurrean eta erabakia bera justifikatzeko erabilitako argudioei dagokionean, gipuzkoako jendarteari zuzendutako mezuak jarrera xenofoboak sustatzen dituela uste dugu. Hori hala, eta insitutzio publikoetatik mezu xenofoboak desagerrarazi eta elkarbizitzarako mezuak eta praktikak landu behar direla ulertuta, adierazpen insituzional hau aurkezten dugu, kargu publiko den orok konpromisoa hartuaz elkarbizitzarako balioak sustatu eta jarrera xenofoboak bultzatu ditzaketan adierazpenik ez egiteko.

Aldi berean, bere jatorria zein den begiratu gabe gure herrian erroldatzen den pertsona ororekin lehen unetik Udaleko zerbitzuen eta herriko elkarten informazio osoa jasotzeko Harrera protokoloa ezartzeko proposamena aurkezten dugu.

Guzti honengatik Udal honek honako adierazpena onartzen du:

1. Lezoko Udalak gure lurralde historikora iristen ari diren pertsona berri guztiak ongi etorriak direla aldarrikatzen du; eta ondorioz, gure instituzioek hemengo edozein herriar bezala tratatu behar dituztela, bai betebeharrak zein eskubideei dagokionez.
2. Lezoko Udaleko kargu publiko guztiek hizkera eta argudiategi xenofoboak diskurtsoetik ezabatzeko konpromisoa hartzen dugu, erakartze-efektua eta antzeko espresabideak, modu bidegabean, kolektibo oso bat susmopean jartzen duelako bere jatorri etnikoengatik.
3. Lezoko Udalak Foru Aldundiari eskatzen dio xenofobia eta diskurtso arrazisten aurkako plana landu dezala, arloko eragile sozialekin batera, eta martxan jar dezala, gurean ere zabaltzen ari den xenofobia desaktibatzeke asmoz.
4. Lezoko Udalak gure herrian erroldatzen den pertsona oro integratzeko Harrera protokoloa martxan jartzeko konpromisoa hartzen du.